

## **646. ZENBAKIDUN** **ALKATETZAREN DEKRETUA**

### **Xedea**

Bolumen Handiko hondakinen bilketa zerbitzu kontratua esleitzea.

### **Aurrekariak**

Lehena: Etxeko bolumen handiko hondakinak batzeko kontratua REZIKLETA, S. COOP. enpresagaz 2014eko ekainaren 30ean amaitu zan. Beraz, zerbitzu hau barriro kontratura atara behar zan, prozedura irekia bidez.

Kontratua lau urterako izango da (urte bi eta beste urte beteko luzapen bi). Kontratuaren prezioa, luzapen biak barne, 101.820 €koa izango da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 10.182 €koa da (Danatara 112.002 €).

Kontratuaren prezioa lehen urterako 25.455 €koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 2.545 €koa da (Danatara: 28.000 €.).

Bigarrena: 2014ko maiatzaren 18an kontu-hartzaileak aldeko txostena egin eban.

Hirugarrena: 2014ko maiatzaren 19an, Tokiko Gobernu Batzordeak erabagi eban bolumen handiko hondakinen bilketarako zerbitzu kontratuaren baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea.

Laugarrena: 2014eko maiatzaren 28an, kontratazioaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidali zan eta ekainaren 16an argitaratu zan. Bertan zehazten zan bezala, proposamenak aurkezteko 15 eguneko epea egoan; hau da, uztailak 1arte.

Bosgarrena: Bi enpresen proposamenak jaso dira:

1. KOOPERA Servicios Ambientales (lehen REZIKLETA, S. COOP.)
2. INBISA, S.A.

Seigarrena: "A" gutun-azal biak zabaldu ondoren, aurkeztutako proposamen biak ontzat hartu ziran.

Zazpigarrena: Osteen, "B" gutun-azalak zabaldu ziran (irispide ez matematikoak) eta aurkeztutako enpresa biek honako puntuazioa lortu eban:

KOOPERA:	50
INBISA:	38

1. Zerbitzua betetzeko, proposatutako egitamu teknikoaren kalitatea: (0-30 puntu)

KOOPERA	INBISA, S.A.
<p style="text-align: center;"><b>30</b></p> <p>Zerbitzuaren helburuak, eboluzioa, deskripzioa, baliabide materialak eta giza baliabideak, legedia: oso ondo</p> <p>2014-2106 urteetarako egutegia aurkeztu da</p> <p>Froga proposamena telefonozko arreta zerbitzua hobetzeko. Jaiegunetan egun aldaketaz informatu</p> <p>Gernikako Transferentzia Zentroko "berrerabilpenerako etxetxo" erabiltzeko proposamena</p>	<p style="text-align: center;"><b>25</b></p> <p>Zerbitzuaren helburuak, deskripzioa, baliabide materialak, giza baliabideak eta informazio sistema: ederto.</p> <p>Bolumen handikoen legediari buruz, aipamenik ez</p> <p>Bilketarako kamioien ezaugarriak ez dira zehazten (matrikulazio urtea, modeloa, matrikula).</p> <p>Erreserbakorik ez da aipatzen.</p> <p>Zerbitzu arduraduna ez da zehazten</p>

1. Baldintza teknikoen agiriari buruzko hobekuntzak. (0-20 puntu)

KOOPERA	INBISA, S.A.
<p style="text-align: center;"><b>20</b></p> <p>Baldintza teknikoen agiriari hobekuntzak ,doan:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.Beste hondakin batzuk biltzea. Gernikako Transferentzi Zentroak onartzen dauzan guztiak edo baliabide bereziak behar dabezanak izan ezik: eskoletako eta erakundeetako altzariak, etxeko altzari gehigarriak, industrietako batzuk. Zerbitzu arruntaren barruan. Kopuru handia balitz, aste bitan</li> <li>2.Puntualki kontrolik gabeko aurkitutako bolumen handikoen bilketa . Ohizko egunetan, gehienez kamioi karga bat</li> <li>3. Bolumen handikoen berrerabilpena, etxeetan jasota zein kalean. Gehienez 4 objektu edo 1,5 m3, Gernikara edo Rezikletaren zentrorra eroango dira</li> <li>4.Arreta telefono zenbaki espezifikoa (ez doanekoa).</li> <li>5.Laguntza teknikoa: zerbitzuaren jarraipenerako 8 adierazle barri neurtzea eta ohizko txostenetan informazio hori gehitzea. Zerbitzuari lotutako legedi arloan, informazioa eta laguntza eskaintzea</li> <li>6.Informazio eta sentsibilizazio kanpaina: arreta telefonoa barria eta zerbitzuaren ezaugarriak ezagutarazteko. Ondo zehaztuta (edukia, diseinua,</li> </ol>	<p style="text-align: center;"><b>13</b></p> <p>Aukerazko zerbitzuak eta hobekuntzak, doan:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.Antzeko bolumen handiko hondakinak biltzea (eskoletan, udal bulegoetan.): hilero, abisuagaz</li> <li>2.Puntualki hirigunetik kanpo kontrol barik aurkitutako bolumen handikoak biltzea.</li> <li>3.Zerbitzua hobetzeko laguntza teknikoa: memoria teknikoak eta aurrekontuak (ez eguneroko zerbitzua hobetzeko)</li> <li>4.Doako telefonoa abisuetarako (linea 900).</li> <li>5.Informazio eta sentsibilizazio kanpainak (liburuxkak eta kartelak). Ondo zehaztu barik: noiz, zenbat ale, edukia..</li> <li>6. Adinekoei edo elbarrituei altzariak etxean jasotzeko laguntza. Antolaketa zehaztu barik</li> </ol>

<p>ale kopurua ...)</p> <p>7. Eskolatako umeentzako sentsibilizazio kanpaina. Koopera merkaturako bisita gidatua edo Mungiako Koopera Reusing Center. 8 ikasle talderentzat bisita gidatu doan ikasturtean zehar.</p> <p>8.Larrialditarako erreserbarako ibilgailu bat prest beti eta zerbitzua emoteko malgutasuna</p>	
---	--

Zortzigarrena: Irispide ez matematikoak behin puntuatuta, 2014ko uztailaren 30ean kontratazio mahaiak enpresa bien “C” gutun-azala (proposamena eta irispide matematikoak) jendaurrean zabaldu eban eta, era berean, “B” gutun-azalean emondako puntuazioa be azaldu.

Hau horrela, jasotako proposamen biak aztertu ondoren, hona hemen enpresa biek aurkeztutako irispide matematikoei buruzko balorazioa:

Proposamen ekonomikoa (0-50 puntu)

KOOPERA	INBISA, S.A.
50	40
19.789,09 €/urtero, BEZ barik	24.727,68 €/urtero, BEZ barik

Kalkulu metodoa: prezio baxuenari gehienezko puntuazioa emon (50 puntu) eta beste proposamenak haren alderantziko proportzioan baloratu

Bederatzigarrena: Balorazio hori egin ostean, hona hemen enpresa biek lortutako behin-betiko puntuazioa, irispide guztiak kontutan hartuta:

**GUZTIRA:**            **KOOPERA: 50 + 50 = 100**  
**INBISA:            38 + 40 = 78**

Hamargarrena: Lortutako puntuazioa ikusita, Kontratazio Mahaiak kontratua **KOOPERA Servicios Ambientales** enpreseari esleitzea proposatu eban. Jarraian, prozedurari jarraipena emon ahal izateko, 2104ko abuztuaren Koopera Servicios Ambientales enpresari errekerimendua egin jakon hamar (10) eguneko epean dokumentazio gehigarria aurkezteko.

### Argudioak

Bakarra: Eskatutako dokumentazioa abuztuaren 14an eta 18an aurkeztu zan eta ontzat hartu daiteke.

### Erabagia

Goian aitaturako guztia kontutan hartuta, honako hau proposatzen dot:

LEHENENGOA: Bolumen Handiko hondakinen bilketa zerbitzua KOOPERA

Servicios Medioambientales enpresari ESLEITZEA.

BIGARRENA: Lizitatzailleek jakinaraztea esleipen horretaz eta, aldi berean, Bermeoko udalaren web orrian be argitaratzea.

HIRUGARRENA: KOOPERA Servicios Medioambientales enpresari jakinaraztea hamar (10) eguneko epean, administrazio honen bulegoetara etorri behar dauala, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Bermeon, 2014ko abuztuaren 21ean  
JARDUNEKO ALKATEA

NIRE AURREAN  
JARDUNEKO IDAZKARIA